

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Muga



ARITZ GALARRAGA

Mugan jaio nintzen. Tira, teknikoki Donostiako Arantzazuko Amaren ospitalean, baina ulertzen da: kontzienteki mugan jaio nintzen mundura. Ez mugaren alde batean edo bestean, mugan berean. Niretzat gauza bakarra baita Hondarribia, Irun eta Hendaiak osatzen duten partzuergo, eurohiri edo dena delakoa. Dei diezaiogun Txingudi. Nik neuk ez ditut ulertzen, ezin, bata besteak gabe, zera bereko auzo bailiran, nahi bada bat gehiago logela, bestea bizigarri, laketoki hirugarrena, trukagarriak izanik hirurak ere. Batetik bestera naturaltasun osoz ibil naiteke –azalaren koloreak laguntzen dit, noski-. Muga, hain justu, hiru horietako batetik harago joatean legoke Txingudiko biztanle batentzat. Miguel Sanchez Ostizek Iruñea-Donostia-Baiona arteko triangeluan kokatzen zuen bere mundua. Ezagun da Pio Barojak Bidasoako errepublika aldarrikatu izana. Apalagoa da nire aberri txikia, munduan ainguratzea, behin eta berriro itzuliko naizen lekua, Txingudiko bazterrek osatzen dutena.

Mugaz hitz egiten hasi, eta burura etorri zait Trieste, gaur egun Italian, Eslovenia mugakide, hiru munduren arteko gurutzaletu: germaniarra, balkanikoa, latino. Eta hiru horiek kontuan izan ezean osatugabe. Multikulturala, poliglota, mugaldekua, trasnazionala, Claudio Magris litzateke ordezkari behinena, baina paisaiaren parte dira Italo Svevo, Umberto Saba, Marisa Madieri, Boris Pahor, James Joyce bera, hamar urtez bertan bizi izan zena. Txingudi, gure Trieste partikularra, xumeagoa litzateke honetan ere, eta Irene Nemirovski, Carlos Blanco Aguinaga, Pablo Sastre, Marie Louise Legorburu, Extefana Irastortza litzuzke ordezkari. Eta etorkizun ezin ederrago bat: hizkuntza, kultura, identitateen pasaleku, harrera gune, malgu, iragazkor, irekia, aberri txiki, munduan ainguratze, behin eta berriro itzulzeko moduko lekua, Txingudiko bazter hauek osatzen dutena. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



AHT

Bernardo Ciriza Lurralde Kohesiorako kontseilariak Nafarroako Castejon-Campanas AHTko trenbide zatia 2026rako martxan izango dela iragarri berri du, eta Sustrai Erakuntzak gogor kritikatu du ekinbide horri 200 milioi euro ematea.

Euskara

Nafarroako Gobernuaren euskara planari "anbizioa" falta zaiola salatu dute Kontseiluak eta Behatokiak. 67 zuzenketa egin dizkiote. Kritikatu dute araugintzaren bidean ez dagoela aldaketarik eta horrek "eskubide urraketan betikotzea" dakarrela.

Xilaba

Amets Arzallusek jantzi du Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsolari txapelketako txapela, buruz burukoan Miren Artetxerekin aritu ondoren. Ondotik sailkapenean gelditu dira Odei Barroso, Maddalen Arzallus, Patxi Iriart eta Maddi Ane Txopereña.